



## PRENTSARAKO OHARRA

18/06/13

### **Bizkaiko Batzar Nagusiek Foru Jauregiaren ondare artistikoa balioan jarteko eskatuko deutesie Aldundiari**

Batzarretako talde guztiek, abstenidutea erabagi dauen Podemos Bizkaiak izan ezik, Talde Mistoaren Arauz Besteko Proposamena onetsi dabe gaur goizean Euskera eta Kulturako Batzordean, Foru Jauregian dagozan artelanen, monumentuen eta arkitektura-eta apaindura-osagaien ondarea balioan jarri daian eskatzeko Bizkaiko Foru Aldundiari.

Proposamena aurkeztu dauen taldeko ordezkariak ganerako batzordekideei bideratu deutesen proposamenean, Foru Jauregian dagozan artelanen, monumentuen eta arkitektura- eta apaindura-osagaien ikusgaitasuna sustatzeko jarduketak bultzatzea horren kalterako diran osagaiak kentzea eta bisitariarentzako azalpen txartel eleanitzak jartea be eskatzen da. Adierazo dauen moduan, euki artistiko handia daukan arren, herritarrek ez dabe Foru Jauregia elementu kultural moduan ezagutzen. Hori dala eta, orain arte egindako beharra aintzatesten dauen arren, Bizkaiko ikono kulturaletako bat bilakatzeko behar egin behar dala esan dau.

EH Bildu eta Talde Popularra ados agertu dira ekimenaren eukiagaz eta motibazioagaz. Podemos Bizkaiak, barriz, abstenidutea erabagi dau, ekimena “airera zabalik” dagola ulertuta. Bere botoa azaltzeko orduan, “behar besteko baliozkotasuna eta kalidatea daukien elementuak, euren artea balioarazoteko moduan erakusten dirala ulertzen dogu”, adierazo dau Podemoseko ordezkariak.

Foru Gobernuia eusten daben taldeei jagokenez, aldeko botoa emon daben arren, Foru Aldundiak holango jarduketak daborduko egiten dituala adierazo dabe. Euzko Abertzaleak taldeko ordezkariak, erakundeak berak egin dauen Foru Jauregiaren interpretazinarako Museologia Planaren Proiektu Proposamenaren idazketea “pausu erabakiorra” dala esan dau.

Proiektua, batzordekideak adierazo dauen moduan, hainbat fasetan eroango da aurrera. Beste ezer baino lehen, antzeko joerak eta proiektuak aztertuko dituan diagnostikoa egingo da, bere ibilpidea eta gaur egungo Ahaldun Nagusiaren egoitza-politiko administratibo moduan beteten dauen lekua laburbilduko da, eta eraikinaren eta gordetan dauen ondare bildumaren ezaugarri esanguratsuenak identifikauko dira. Horrek, balio publikoa sortzera bideratutako oinarritzko kudeaketako interpretazinarako museologia planaren faseari emongo deutso bidea.

## ATXURRAKO KOBAZULOA ETA KULTURA ONDAREAREN EUROPAKO URTEA

Eguneko gai zerrendea Lorea Bilbao Euskera eta Kulturako diputatuaren agerraldiagaz osatu da, Talde Mistoak eskatuta, lehenengo, Berriatuko Atxurrako kobazuloan egin diran ikerketen balantzea egin daian eta, gero, Kultura Ondarearen Europako Urtearen barruan Bizkaian aurreikusitako jardueren egutegia eta eukia zehaztu daizan.

Atxurrako kobazuloari jagokonez, Aldundiko arduradunak azaldu dau Diego Garatek zuzendutako talde arkeologikoak aurrera eroandako lehenengo azterketa kanpaina bietan animalien 113 irudikapen aurkitu dirala, bisonteak eta zaldiak, batez be. Horrez gain, silexezko dozena bi pieza berreskuratzean eta horreen azterlan mikroskopikoa egin ostean, artistek euren artelanak egiteko erabilten ebezan tresnak ezagutzeko aukerea eukiko dogu. Beste alde batetik, aztertutako karbonozko 500 aztarnek, artelanak egiteko eta ikusteko erabilten ziran argiztapen sistemen ganeko idea emoten deuskue. Azterlan hori Foru Aldundiak finantzetan dau, XX. mendearen lehenengo erdialdean J.M. Barandiaranek aztertu ebazan kobazuloak eta bestelango aztarnategi arkeologikoak barriro aztertzeko esparru programaren barruan.

Proiektuak bost urteko iraupena dauka (2016-2020). Epealdi horretan, leku bakoitzean egindako lau kanpaina sartzen dira, in situ dokumentaziorako, eta bulegoko azken kanpaina, amaierako memoria eta monografia idazteko, eta gero Bizkaiko Foru Aldundiaren Kobie aldizkariaren BAI seriean argitaratzeko.

Bukatzeke, Kultura Ondarearen Europako Urteari jagokonez, Euskera eta Kulturako diputatuak adierazo dau, “Itzaleko ondarea: miradas al patrimonio oculto” goiburuean Aldundia Bizkaian eroaten ari dan estrategien barruan hainbat jardura sartzen dirala: normalean jentearentzat zabalik ez dagozan edo heltzeko gaitzak diran lekuetara bisitak antolatzea; kultura ondarea berreskuratzeko eta zaharbarritzeko erakundetik egiten dan beharra azpimarratzea; gehienetan ondare moduan hartzen ez diran elementuak barriro aurkitzea; gurata isilduarazo dan ondarea erakustea; eta 2018. urtea kultura ondarerako funtsezkoa bilakatzen daben efemerideak azpimarratzea, Euskaldunako dikeen 150 urteak edo Bizkaia Zubiaren 125 urteak, beste batzuen artean.

Azkenengo puntu horri jagokonez, EH Bildu taldeak Euskaldunako dikeen eta hirugarren dikean eraikin bat eregitearen ganeko albisteei buruz itaundu deutso Diputatuari. EH Bilduko batzordekideak, Bizkaiko Foru Aldundiaren helburu nagusia “daukaguna babestea eta defendidutea” izan behar dala esan dau. Bere erantzunean, Lorea Bilbaok “ez eraikuntzarik ezta eraikinik ez dagola” esan dau.

Oposizinoan generako taldeek modu positiboan baloratu ditue jarduketa horreek, eta urtearen bukaeran balantze bat egitea eskatu dabe, arrakastea baloretako. Modu berean, Gobernu eusten daben taldeek, Bizkaiko kultura ondarea balioan jarte horretan parte hartzeak daukan garrantzia herritarrengana bideratu behar dala azpimarratu dau.

NOTA DE PRENSA

13/06/18

## **Las Juntas Generales de Bizkaia instarán a la Diputación a que ponga en valor el patrimonio artístico del Palacio Foral**

Todos los grupos junteros, a excepción de Podemos Bizkaia que ha optado por la abstención, han aprobado esta mañana en el seno de la Comisión de Euskera y Cultura, una Proposición No de Norma del Grupo Mixto para instar a la Diputación Foral de Bizkaia a que ponga en marcha actuaciones para la puesta en valor del patrimonio artístico, arquitectónico, monumental y ornamental alojado en el Palacio Foral.

En la propuesta que ha trasladado el representante del grupo proponente al resto de apoderados, se insta promover en las obras de arte, monumentos y elementos arquitectónicos y decorativos existentes en el Palacio Foral la mejora de su visibilidad, la retirada de elementos que puedan perjudicarla y la instalación de carteles explicativos multilingües que permitan su mejor comprensión por los visitantes. Tal y como ha manifestado, a pesar de su alto contenido artístico, el Palacio Foral no es conocido por la ciudadanía como elemento cultural. Es por eso por lo que, a pesar de reconocer el trabajo realizado hasta ahora, ha incidido en la importancia de trabajar para que se convierta en uno de los iconos culturales de Bizkaia.

Tanto EH Bildu como Grupo Popular se han mostrado conformes tanto en la iniciativa como en la motivación de ésta. Podemos Bizkaia, sin embargo, se ha inclinado por la abstención al considerar la iniciativa como “abierta al aire”. En la explicación de su voto la representante de Podemos ha manifestado que “entendemos que los elementos que tienen una validez y calidad suficiente están expuestos de manera que se haga valer su arte”.

Por su parte los grupos que sustentan al gobierno foral, si bien han votado favorablemente, han manifestado que la Diputación Foral ya realiza actuaciones similares. La representante del grupo Nacionalistas Vascos ha definido como “paso decisivo” la redacción de una Propuesta de Proyecto Plan Museológico interpretativo del Palacio Foral por parte de la propia institución.

El proyecto, tal y como ha explicado la apoderada, se desarrollará en varias fases. En primer lugar se elaborará un diagnóstico en el que se analizarán las tendencias y proyectos similares, se sintetizará la trayectoria y situación actual como sede político – administrativa del Diputado General, y se identificarán los rasgos más significativos del edificio y de la colección patrimonial que alberga. Esto dará paso a la fase de plan museológico interpretativo de gestión básica enfocada hacia la generación de valor público.

### **CUEVA DE ATXURRA Y AÑO EUROPEO DE PATRIMONIO CULTURAL**

El orden del día se ha completado con la comparecencia de la Diputada de Euskera y Cultura Lorea Bilbao, a petición del Grupo Mixto, a fin de que, por un lado, detallara el balance de las investigaciones llevadas a cabo en la cueva de Atxurra, y por otro lado,

concretara el calendario y contenido de las actividades previstas en Bizkaia dentro del Año Europeo del Patrimonio Cultural.

Respecto a la cueva de Atxurra, la responsable foral ha explicado que en las dos primeras campañas de estudio llevadas a cabo por el equipo arqueológico dirigido por Diego Garate, se han logrado localizar 113 representaciones de animales, principalmente bisontes y caballos. Asimismo, la recuperación de dos docenas de piezas de sílex y su correspondiente estudio microscópico permitirá conocer las herramientas utilizadas por los y las artistas para crear sus obras de arte. Por otra parte los 500 restos carbonosos analizados ofrecen una idea sobre los sistemas de iluminación que se utilizaban tanto para la creación como para la contemplación de las obras. Este estudio está financiado por la Diputación Foral dentro del programa marco de reestudio de las cuevas y otros yacimientos arqueológicos estudiados en la primera mitad del siglo XX por J.M. de Barandiaran.

El proyecto tiene una duración total de cinco años (2016-2020) que comprenden cuatro campañas de campo para la documentación in situ, y otra campaña final de gabinete para la redacción de la memoria y monografía final y posterior publicación en la serie BAI de la revista Kobie de la Diputación Foral de Bizkaia.

Por último, en lo que al Año Europeo del Patrimonio Cultural se refiere, la Diputada de Euskera y Cultura ha declarado que, entre las estrategias que la Diputación está llevando a cabo en Bizkaia bajo el lema “Itzaleko ondarea: miradas al patrimonio oculto”, está la de organizar visitas a lugares que normalmente no están abiertos al público o son difícilmente accesibles; hacer hincapié en la labor de recuperación y restauración del patrimonio cultural que se lleva a cabo desde la institución; redescubrir elementos que habitualmente no son considerados patrimonio; visibilizar el patrimonio que ha sido deliberadamente silenciado; y destacar efemérides que hacen de 2018 un año fundamental para el patrimonio cultural, como por ejemplo los 150 años de los diques de Euskalduna o los 125 años del Puente Bizkaia.

En relación a este último punto, el grupo EH Bildu ha interpelado a la Diputada sobre los diques del Palacio Euskalduna y las noticias sobre la posible construcción de un edificio en el tercer dique. A este respecto la apoderada de EH Bildu ha manifestado que el principal objetivo de la Diputación Foral de Bizkaia debe ser el de “proteger y defender lo que tenemos”. En su turno de réplica Lorea Bilbao ha asegurado que “no hay construcción ni edificios”.

El resto de grupo de la oposición ha valorado positivamente estas actuaciones y han solicitado que a final de año se realice un balance para valorar su éxito. De igual manera los grupos que sustentan al gobierno han incidido en la importancia de trasladar a la ciudadanía la importancia de participar en esta puesta en valor del patrimonio cultural de Bizkaia.